



San Frantzisko Xabierkoa, mundua aldatu zuen pertsona bat

Erakusketaren gida didaktikoa



ALBOAN



Compañía de Jesús



V CENTENARIO
DEL NACIMIENTO DE
FRANCISCO DE JAVIER

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Helburuak, edukiak eta ebaluazioa	4
Panelak	5
■ Munduaz dugun ikuskera aldatu egiten da	5
■ Aldarazten gaituzten aldaketak	7
■ Gizarte-aldaketak	9
■ Aldaketak pertsonen baitan: Frantzisko Xabierkoa, XVI. mendeko pertsona	10
■ Denboran emandako aldaketak: egun bat ... (r)en bizitzan	12
■ Bidaia zaharrak eta bidaia berriak	13
■ Bidaia zaharrak eta bidaia berriak (2)	14
■ Komunikabideen alorreko aldaketak	16
■ Aldaketak bestelakoa den jendeari begiratzeko moduan	17
■ Aldatzen diren eta aldarazten duten pertsonak	18
■ Gauzak aldatzen dituzten erakundeak eta haien erdiespenak	19
■ Gauzak zer norabidetan aldatzea nahi dugu?	21
Beste baliabide interesgarri batzuk	22
Bibliografia	22

1. Aurkezpena

Gure bizileku den mundua etengabe aldatzen ari da. Batzuetan horretaz ohartzen ez garen arren, gogoeta eginez gero eta historian elkarrengandik urrun dauden bi garai sakontasunez alderatuz gero, gizakion eginkizun-esparru guztietan aldaketak ageri direla ikusiko dugu: ezagutzan, komunikabideetan, antolabideetan, garraiobideetan, ohituretan, elikaduran, janzkeran... horiek guztiak aldatu egiten dira. Ideia hori erakusketa osoan zehar egiaztatuko dugu.

Aldaketa horiekin batera badaude, orobat, denboran zehar mantentzen diren gauzak:

- pertsonen ingurunearen gain dugun eragina (mesederako edo kalterako),
- herrialde eta kultura desberdinen arteko hartu-emanak,
- mundu duinagoa eraikitzeko ardura...

Frantzisko Xabierkoa (1506-1552) XVI. mendeko pertsonaia gailena da. 2006. urtean bere jaiotzaren V. mendeurrena betetzen da. Bere historia pertsonalaren bidez bere aldaketa-prozesu pertsonalera gertura gaitzke eta, orobat, bere garaira.

2. Helburuak, edukiak eta ebaluazioa

Helburu orokorra

Globalizazio-prozesuaren eta mundua bizitzen ari den aldaketa-prozesuaren inguruko gogoeta bultzatu eta, orobat, pertsonen eta erakundeek beren inguruaren gain duten eraginaz ohartzea.

Edukiak

Edukizkoak

XVI. Mendetik gaur egunera arte eman diren aldaketa sozial eta pertsonaletara hurbilpena.

Globalizazio prozesura hurbilpena.

San Frantzisko Xabierkoaren irudira hurbilpena.

Mundu justuagoa eraikitzea xede duten pertsonen eta erakundeen ezagutza.

Jarrerazkoak

Beste kultura batzuetako pertsonen aurreiritziak eta estereotipoak gainditzea.

Gutako bakoitzak eta guztiok osatutako taldeak gure ingurunearen gain dugun eraginaz ohartzea.

Aldaketa sustatzen duten pertsonen eta erakundeen jarrerekin eta balioekin bat egitea.

Aldaketarekiko konpromisoa hartzea duintasuna eta justizia pertsona guztion ondare izango diren mundua eraikitzeko.

Prozedurazkoak

Informazioa bilatu eta ikerketatxo batzuk egitea.

Gure gizartea eta, orobat, ideiak eta planteamenduak kritikoki aztertzea.

Talde-lanean aritzea.

Ebaluazioa

Heziketa-materialak lantzen jarraitzeko, funtsezko deritzogu horiek erabiltzen dituzten pertsonen ebaluazioak eskuragarri izatea, material horiek hobetzeko bidean aurrera egin dezagun. Beraz, erakusketa eta gidaren inguruko zuen iritziak eta iradokizunak entregatzea edo posta bidez **ALBOAN** i ematea eskatzen dizuegu. Postaz emanez gero, hurrengo helbideetako batera bidali:

Padre Lojendio, 2
48008 **Bilbo**
Tel.: 944 151 135
Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2
31011 **Iruña**
Tel.: 948 231 302
Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda 7, 4. I.
20001 **Donostia**
Tel.: 943 275 173
Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

3. Panelak



Munduaz dugun ikuskera aldatu egiten da

XVI. mendeko munduko mapak eta gaur egungoak bi garai desberdin islatzen dituzte. Gure ingurua grafikoki adierazten dugun moduak, gure sinesmenak eta balioak ere islatzen dituzenez, irudietan ikus ditzakezun bi munduko mapak aztertzea proposatzen dizugu.



Mercator mapa

Mercator mapa XVI. mendeko Gerardus Mercator kartografo belgikarrak –nabigazio-mapak eta kartak grabatu zituen–, egin zuen 1569an. Europako nabigatzaileak tresna erabilgarri batez hornitzeko egin zuen mapa hori.

Harrezkero, munduaren proiektzio horren erabilera zabala izan da.

Hala ere, kontinenteak adieraztean:

- ipar hemisferioaren tamaina handiagotzen du, planetaren guztizko azaleraren 2/3 ematen baitio;
- ekuatoreari dagokion lerroa planisferioaren zentroa baino askoz ere beherago kokatzen du;
- ekuatoretik urrundutako eremuak asko deformatzen ditu.



Peters mapa

1970eko hamarkadan Arno Peters ikertzaile alemaniarrek Peters mapa egin zuen, munduko mapen irudi eurozentristak kezkatzen baitzuen.

Petersek zioen Mercatoren munduaren proiektzioak –eskola-liburuek gehien erabiltzen zutena– errealitatearekin bat ez datozen zenbait konnotazio zituela eta munduaren irudia itxuraldatzen zuela. Garai hartako eurozentrismoaren adierazgarria zen irudi hori.

Horregatik guztiagatik, Petersek munduaren beste mapa bat proposatu zuen, eta eremu kontinentalak errealitate-
ra gehiago egokitzen diren moduan adierazten saiatu zen:

- lurralde bakoitzaren azalera erreala errespetatu zuen, handiagotu edo txikiagotu gabe;
- bi hemisferioei azalera bera eman zien, ekuatoreari dagokion lerroa maparen zentroan kokatu baitzuen;
- lurreko eskualde guztiak adierazi zituen, poloetako eskualdeak barne.

Proposamenak

- Bi mapen artean aldeak daude. Zuk zer alde aurkitu duzu? Zer alde harritzen zaitu gehien? Zer iritzi duzu mapa bakoitzari buruz? Zure ustez, zer mezu adierazi nahi du mapa bakoitzak?
- Aldaketa ugari daude herrialdeen izenei eta mugei dagokienez. Aipatu herrialderen batean emandako horrelako aldaketaren bat, eta gehiago jakin nahi izanez gero, egin ezazu horren arrazoiengatik ikerketa: zergatik aldatu dira herrialde horien izenak? Noiz aldatu ziren mugak?



Aldarazten gaituzten aldaketak

Bi garaien artean alde asko daude, baina badaude, orobat, zenbait antzekotasun.

Zenbait funtsezko aldaketa gertatu dira: biztanle-kopurua nabarmen handiagoa da, aurrerakuntza teknologikoei esker ekonomia-antolaketan aldaketa asko izan da... baina gizarte-desberdintasun handiak daude oraindik, pertsonen gehiengoak ez du bizi-baldintza duinak eta, politikaren arloan, pertsonen bizia arriskuan jartzen duten gatazka armatuak daude oraindik.

XX-XXI. Mendeko zenbait pertsona

Historia ikastean eta beste garai batzuetan beren inguruan eragin handia eduki zuten pertsonak nabarmentzean, ohikoa da gehienak gizonezkoak izatea. Izan ere, historiaren beste garai batzuetan paper nabarmena eduki zuten emakumeen inguruko informazioa aurkitzeak ahalegina eskatzen du, baita gaur egungo emakume nabarmenen inguruko informazioa bilatzeak ere.

Ondoren azaltzen dugu gure garaiko zenbait emakume esanguratsuren ekarpenak zeintzuk izan diren.



Marie Curie (Frantzia)

Zientzialaria. Kimikako Nobel sariduna 1911n eta Fisikako Nobel sariduna 1903an. Bi kategoriatan Nobel saria irabazi duen pertsona bakarra da.



Mary Robinson (Irlanda)

Irlandako gobernu-burua 1990-1997 urteen artean. Giza-eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-mandataria 2002ra arte. Emakumeen eta pertsona behartsuenen eskubideen alde borroka egin zuen.



Aung San Suu Kyi (Birmanian)

Bakearen Nobel sariduna 1991n. Birmaniako oposizioaren liderra, eta Giza Eskubideen aldeko ekintzaile garrantzitsua.



Margaret Mead (Estatu Batuak)

Antropologo garrantzitsua, eta hego pazifikoko herrietan aditua.



Arundhati Roy (India)

Idazlea. Booker literatura-saria 1997an.



Vandana Shiva (India)

Fisika-zientzietan doktore. Ekologiaren eta feminismoaren aldeko ekintzaile garrantzitsua. Bakearen Nobel sari alternatiboa irabazi zuen 1993an.



Shirin Ebadi (Iran)

Abokatua. Epaille izatera iritsi zen lehen emakume irandarra, 1979an emakumezkoek kargu hori izatea debekatu zuten arte. Bakearen Nobel sariduna 2003an (sari hori jaso zuen lehen emakume musulmana).



Marina Silva (Brasil)

Ingurumen-ministroa. Garapen jasangarriaren defendatzaile indartsua.



Gabriela Mistral (Txile)

Idazlea. Literaturaren Nobel sariduna 1945ean.

Proposamenak

- Pertsonaia aipagarriak: badago atal horretan harritzen zaituen gauzarik? Zergatik harritzen gaitu XX-XXI. mendean gizonezkoek ez agertzeak eta ez gaitu harritzen XVI. mendean emakumezkoek ez agertzeak? Mundua onberagoa bihurtzeko ekarpenak egin dituzten gizon-emakumeen inguruko ikerketa eginez osa dezakezu.



Gizarte-aldaketak

Lanbideak, aisialdia betetzeko moduak, elikatzeko moduak eta familiak aldaketa nabarmenak jasan dituzte XVI. mendetik gaur egunera arte. Halaber, azpimarratu nahi dugu garai hartako eta gaur egungo bizimodu-motetara gerturaten garenean sarritan errealitatea deforma dezaketen estereotipoak eta orokortzeak erabiltzen ditugula.

Proposamenak

- Alderatu XVI. mendeko bizimodua eta gure bizimodua: zer aldaketa gertatu dira? Zer antzekotasun daude?
- Nobleziaren eta jende xumearen bizimodua desberdinak ziren, garai berean bizi ziren arren. Zure auzoko jendeari eta ezagutzen duzun jendeari buruzko gogoeta egiten baduzu, ziur askotariko bizimodu-motak aurkituko dituzula... deskriba itzazu.
- Azter itzazu paneleko beste aspektu batzuk eta landu itzazu modu antzekoan.





Aldaketak pertsonen baitan: Frantzisko Xabierkoa, XVI. mendeko pertsona



Gizarte-aldaketek eta aldaketa pertsonalek oso lotura estua dute: batzuk gabe besteak ezin dira izan. Pertsonak gure inguruneari eragiten diogu, eraikitzen dugun gizartearen eta bertan gertatzen diren aldaketen protagonistak gara, eta pertsonekin, beste kulturekin edota beste ideiekin ditugun hartu-emanen ondorioz gure pentsamoldea, sentitzeko modua eta bizimodua alda daitezke.



Horren harian, Frantzisko Xabierkoari, bere bizitza aldatu zuen eta horrekin batera bere ingurunearen gain eragina izan zuen XVI. mendeko gizonari, erreparatuko diogu.

Xabierko gazteluan jaio zen (Nafarroan), 1506ko apirilean. 5 anai-arreben arteko gazteena zen (3 mutil eta 2 neska). Bere gurasoak Joan Jaso eta Maria Azpilikueta izan ziren.

1525ean Parisa joan zen, Sorbonako unibertsitatean arteak, filosofia eta teologia ikastera. Han Ignazio Loiolakoa ezagutu zuen, eta beste 5 kiderekin batera Jesusen Lagundia sortu zuten. Ez zen sorterrira bueltatu.

1536an Italiarantz joan ziren Jerusalema bidaiatzeko asmoz, baina zenbait urte Italian eman ondoren Joan III.a Portugalgo erregearen eskaera bat iritsi zen; Indietako portugaldar kolonietara bidaiatuko zuten zenbait erlijioso eskatu zituen erregeak. Azkenik, Frantzisko joan zen espedizioan beste bi kiderekin, tripulazioarekin, merkataritza portugaldarrekin eta abarrekin batera.

Haren bizimodua

Frantzisko familia noblekoa zen, eta horrek bere haurtzaroko eta gaztaroko bizimodua markatu zuen:

- Gaztelu batean bizi zen.
- Bere familiak lur-sailak zituen (ez zuen ekonomia-arazorik eduki jateko, jantzeko etab.).
- Heziketa etxean jaso zuen.
- Erromeriez, antzerkiez, ehizaldiez etab. gozatu zuen (kirola ere egiten zuen, dezente ondo gainera).
- Atzerrian unibertsitatera joateko aukera eduki zuen.

Hala ere, nola bizi erabakitzeak aukera eduki zuenean, erabat aldatu zuen bizimodua:

- Gainerako bizi-baldintzek gutxi arduratzen zuten gaztea izatetik...
 - ... Denbora gaixoekin, kartzelaratutako pertsonekin... ematera.
- Aurkitzen zituen kulturak ez ulertzetik eta zenbaitetan gutxiestetik...
 - ... Indigenekin bizitzera eta lan egitera, haien kulturara errespetu handiz gerturatuzera.
- Etxean geratu ahal izatetik...
 - ... Beste munduak ezagutzera joatera.

Bitxikeria:

Frantziskok kotoizko mantu bat, mahukarik gabekoa, beltzez tindatutakoa eta uhalik gabekoa, jantzi zuen Indian bizi izan zen urteetan. Larruzko diru-zorrotxo bat zeraman beti lepotik zintzilik, barnean maite zituen pertsonen idatzi zizkieten gutunetatik moztutako sinadurak zituena.

Proposamenak

- Nolakoa uste duzu izango litzatekeela Frantzisko gaur egun jaio izan balitz, ezagutzen dituzun bere ezaugarri guztietan oinarrituta? Zure ustez nolakoa izango litzateke bere bizimodua? Zertan jardungo luke, zure aburuz? Nola jantziko litzateke?
- Bere izaeraren ezaugarriak kontuan hartuta, zertan zarete antzekoak hura eta zu?



Denboran emandako aldaketak: egun bat ...(r)en bizitzan

Jardueretan ematen dugun denborak markatzen du gure bizi-esperientzia, ikasten duguna, pentsatzen duguna, baloratzen duguna, sentiitzen duguna eta, azken finean, bizitzen duguna.

Gaur egun daramagun bizi-erritmoak jarduera guztietan ematen dugun denboraz kontziente ez izateko eta gaur egungo bizimoduaren presa eta abiadura zurrunbiloan sartzeko arriskua du, aldeaz aurretik gure denbora zertan eman nahi dugun erabaki gabe.

Betebeharrak ditugun arren, aske gara horiek nola antolatu erabakitzeko. Askatasun hori erabiltzen dugu?

Proposamenak

- Aldera ezazu lau pertsonetako bakoitzak gauza hauek bakoitzean ematen duen denbora: ikasten edo lan egiten, oinarrizko beharrak asetzen, familia zaintzen, atseden hartzen eta aisialdian, joan-etorrietan... eta egin ezazu pertsona bakoitzak jarduera bakoitzean denbora desberdina ematearen arrazoiei buruzko gogoeta.
- Pentsa ezazu jarduera bakoitzak garai bakoitzean dituen ondorioei buruz: gure aisialdian garai hartan egiten zituzten gauza berdinak egiten ditugu? Bataren eta bestearen abantailei eta desabantailei buruzko gogoeta egin dezakezu.
- Egin ezazu zeure taula/erlojua: lan-egun baten eta jai-egun baten arteko aldea. Astean zenbat denbora ematen duzu ikasten? Zenbat denbora erabiltzen duzu telebista ikusteko, ordenagailuarekin jolasteko edo bideojolasekin aritzeko? Zenbat denbora ematen duzu beste pertsonekin erlazionatzen (lagunak, anai-arrebak, gurasoak)? Zenbat denbora erabiltzen duzu bestelako jarduerak egiten? Zenbat denbora eskaintzen diozu zure osasunari?
- Nahi duzunari eskaintzen diozu denbora? Zertan emango zenuke denbora gehiago? Zertan gutxiago? Zure ustez, denbora zeri eskaintzea da garrantzitsuagoa?
- Gure eguneroko bizitza XVI. mendeko pertsonetatik bereizten duen fenomenoetako bat aurrerapen teknologikoak dira, zalantzarik gabe. Gaur egun aisialdi gehiago dugula pentsa dezakegu. Zer ekarpen egiten dio denbora gehigarri horrek gure hazkunde eta garapen pertsonalari eta sozialari?



Bidaia zaharrak eta bidaia berriak

Frantzisko Xabierkoak bere bizitzan lau bidaia handi egin zituen; Afrika inguratu ondoren, Asiako zenbait herrialdetan ibili zen: India, Indonesia, Japonia, Malaysia eta Sri Lanka. Abentura 1541ean hasi zen, Lisboatik abiatu zenean; geroztik leku batetik bestera ibili zen, 1552an hil zen arte. Itsasontzi bidez egin zituen bidaia horiek, eta artxipelagoetako hainbat uharte bisitatu zituen.

Frantzisko Xabierkoaren 2. bidaia:

Meliapur (India) – Malaka (Malaysia) – Moluka uharteak (Indonesia). 1545 – 1546 (7 hilabete).

Egindako kilometro-kopurua:

8.700 inguru.

16 hilabetean inguru horretako uharteetan barrena ibili zen, eta Amboinoraino (Indonesia), Ternateraino (Indonesia), Moro uharteetaraino (Indonesia)... iritsi zen. Leku horietako kulturak ezagutu zituen, eta herri guztietan gizarteratzen saiatu zen.

Indiako Ozeanoan zeharreko itsas bidaiak montzoiaren mendeko zeuden: martxoan eta ekainan artean itsasontziak Indiatik Itsaso Gorriantze eta Persiako Golkorantz abiatzen ziren, eta irailtik apirilera artean, berriz, ekialderantz.

Garai hartan Malaka hiria garrantzia hartzen ari zen portua zen, merkataritza nabarmena zuena.

Hiri horretan Anjiro ezagutu zuen, Japoniaraino iristera animatu zuen merkataria japoniarra.

Abentura berri hori hasi aurretik Indiara bueltatu zen, eta bertan zenbait hilabete igaro zituen.

Proposamenak

- Aukeratu Frantziskok egindako bidaia bat, eta zuk gaur egun hori egiteko beharko zenituzkeen gauza guztien plangintza egin: zer garraio-bide aukeratuko zenuke? Zenbat denbora beharko zenuke? Zer prestatze-lan egin beharko zenituzke bidaia egin aurretik? Zenbat kilometro egin zenituzke Frantziskok bidaia bera egiten emandako denboran? Egin ezazu bisitatuko zenituzkeen herrialdeei buruzko ikerketa (hiri nagusiak, hizkuntza, dirua, biztanle-kopurua, per capita errenta, GGI (giza garapeneren indizea), bizi-itxaropena, eskolatzeko-tasa...)



Bidaia zaharrak eta bidaia berriak

Migrazioak

Iraganerantz begiratu gero, historiako hainbat garaitan migrazio-fenomenoak gertatu direla ikus dezakegu: pertsonen lekualdatzeak hainbat modutan eta hainbat arrazoigatik gertatu direnak. XVI. mendetik aurrera migrazio-prozesu garrantzitsuak gertatu ziren 4 aldi finka ditzakegu:

	Afrikatik Amerikara	Europatik Amerikara eta Australiara	Indiatik Txinara, Asiara, Ozeaniara...	Pobretutako herrialdeetatik aberastutako herrialdeetara
Migratzaile-kop.	10-20 milioi	60 milioi baino gehiago	30 milioi baino gehiago	35 milioi baino gehiago
Munduko biztanleria (gutxi gorabeherakoa)	500 milioi	750 milioi	2000 milioi	6000 milioi
Ezaugarriak	Esklaboen salerosketa		Sasoikako mirabeak, eskubide politikorik eta giza eskubiderik gabeko langileak	
Arrazoi nagusiak	Ekonomia-interesak	Ekonomikoak, abentura bilatzea, askapena	Eskulan merkearen eskasia	Ekonomikoak
Migrazio-mota	Nahitaezko migrazioa	Migrazio erdiaskea	Migrazio erdinahitaezkoa	Migrazio erdiaskea?
Garaia	XVI.-XIX. mendeak	XVIII-XX. mendeak	XIX-XX. mendeak	1950etik aurrera...

Iturria: Nacido en otra parte, un ensayo sobre la migración internacional, el desarrollo y la equidad, Bob Sutcliffe. 1998. Hegoa, Bilbo.

Proposamenak

- Hegoaldetik iparraldera: ezagutzen duzu hona bizitzera etortzeko bidaia luzea egin duen inor? Bidaiatzera bultzatu duten arrazoen, aurkitu dituen zailtasunen eta hemengo bizimoduari buruz duen iritziaren inguruko ikerketa egin dezakezu. Zer gogoeta egin duzu gai horri buruz? Gauza berririk ikasi duzu?
- Kontsumitu ohi duzun produktu bati buruzko ikerketa egin dezakezu: soinean daramazun jantzi bati edo jan ohi duzun ontziratutako produktu bati buruz. Saia zaitetz hauek ikertzen: produktua non egin duten, non paketatu duten, nola garraiatu duten, zer enpresak banatu duen, non merkaturatu duten, produktuaren marka komertziala zein den eta enpresa hori zer herrialdetakoa den.
- Iker dezakezu baita ere gatazka armatuen ondorioz desplazatuak izan diren pertsonen inguruan.



Komunikabideen alorreko aldaketak

Gaur egungo komunikabideen kantitatea eta azkartasuna XVI. mendekoekin alderatzen baditugu, aldaketa handi bat ikus dezakegu: komunikabide bakarra egotetik (posta bidezko komunikazioa), entrega denbora eta jasotzeko denbora luzekoa zena (bi urtekoa, San Frantzisko Xabierkoaren kasuan) posta elektronikoa, skype, txat zerbitzua eta mezuak izatera pasatu gara, non hauek momentuko komunikazioa ahalbidetzen diguten. Ikusten dugu beraz aukerak ugaritu eta hobetu egin direla.

Dena dela, gaur egun aurkitzen gara, askotan, informazio azkarra eta arina izateak espero dugunaren kontrako efektua eragiten duela. Izan ere, gaur egun, hainbeste informazioetara sarbidea dugunez, hainbeste leku eta jenderengana, askotan ez dugu denborarik ez gaitasunik gure ondoan dauden pertsonekin komunikatzeko.

Proposamenak

- Egin ezazu pertsonen arteko komunikazioan izan behar diren gauza garrantzitsuei buruzko ideia-jasa bat.
- Azter itzazu gaur egun eskuragarri ditugun komunikabideetako bakoitzaren abantailak eta desabantailak, alderatze-irizpide gisa ideia-jasaren ondoren emandako erantzunak erabiliz. (Alderatzeko irizpide batzuk hauek izan daitezke: pertsonen arteko kontaktua, komunikazioa erraz gertatzen den edo ez, pertsonen arteko gertutasun-sentsazioa, komunikazioaren azkartasuna...).
- Komunikazioen garaian bizi garen arren, gure inguruan bakardade-egoerak sortzen dira eta, orobat, komunikazio gabezia oinarri duten gatazkak. Aipatu horrelako egoerak, eta horien zergatiei buruzko gogoeta egin.
- Komunikabide guztiak pertsona guztien eskura daude benetan? Zer pertsona-taldek ez dituzte eskuragarri zenbait komunikabide? Zer ondorio ditu baztertzeko horrek?



Aldaketak bestelakoa den jendeari begiratzeko moduan

Hainbat kulturatako pertsonekin elkartzuz gero, gauza asko ikas ditzakegu. Elkartzea ez da erraza beti, eta askotan aurreiritziak eta estereotipoak eragina dute gure barnean.

Duela 500 urte zein gaur egun, bestelakoa den jendeari begiratzeko modua mesfidantzak eta beldurrak marka dezakete edo, alderantziz, errespetuz eta jakinguraz begira diezaiokegu elkarri. Guztia errealitateari aurre egiteko hartzen dugun jarreraren arabera da.

Proposamenak

- Azter itzazu bi garaietako aurreiritziak: alde asko dago edo antzekoak dira?
- Erabili ohi ditugun estereotipoen inguruko gogoeta egin ezazu: herri indiarrari, herri japoniarrari, herri afrikarrari eta zurea ez bezalako beste herriei zein kulturei buruz pentsatzen duzunean, zer irudi datozkizu burura? Zer ideia positibo eta negatibo dituzu haiei buruz? Nola sortu dira zure ideia horiek? Herrialde horietako pertsonarik ezagutzen duzu?
- Jar zaitez zurea ez bezalako kultura duen pertsona baten lekuan, eta pentsa ezazu hurrengo hau: nola ikusten gaitu gu, zure ustez? Zer gauza positibo eta negatibo azpimarratuko lituzke gure bizimoduari dagokionez?
- Zure inguruan hainbat kulturatako pertsonen arteko erlazio-esperientzia positibo eta atseginak bila ditzakezu, eta ikasgelan horien inguruko azalpen txiki bat eman. Zer ikas dezakegu horiei esker?



Aldatzen diren eta aldarazten duten pertsonak

Xabierren eragina eta erdiespenak

Frantziskok Indietako mundua Europako mundura gerturatzea lortu zuen bere gutunen bidez. Aldi berean, bisitatu eta ezagutu zituen herriekiko errespetu sakona transmititzen saiatu zen, merkataritza portugaldarrek herrialde haietako jendearekiko zuten jarrera ez bezalako azalduz. Zenbait ikastetxe abian jarri zituen, beste kultura eta herri batzuetara gerturatzeko ardura sorrarazi zuen...

Gaur egun, adibidez, herrialde askotan daude San Frantzisko Xabierkoa edo Xabier izeneko ikastetxeak, besteak beste, Guatemalan, Panaman, Brasilen, Txilen, Kolonbian, Paraguain, Perun, Uruguain, Venezuelan, Australian, Indian, Nepalen, Filipinetan...

Gaur egungo beste Xabier batzuk

Gaur egun ere badaude pertsonak Xabierren espiritu berbera dutenak, modu solidario batean bizi direnak eta justiziaren alde lan egiten dutenak: Nelson Mandela, Teresa Kalkutakoa, Rigoberta Menchú, Chico Mendez, Mahatma Gandhi eta beste pertsona asko.

Proposamenak

- Aipa ezazu zer duten komunean jendearen bizitza hobetzen saiatzen diren pertsonak: zer baliotan sinesten dute?



Gauzak aldatzen dituzten erakundeak eta haien erdiespenak

Zenbait erakunderen erdiespenak:

Survival edo haurren lanaren aukako munduko martxa bezala, beraien ingurunea hobetzeko lan egiten duten beste talde batzuk ere badaude.

Minusbaliotasunen bat duten pertsona-taldeen zenbait erdiespen:

- Minusbaliotasun fisikoak dituzten pertsonak: ekitaldi ofizialetan zeinu-interpretateak egotea, eskoletan laguntza jasotzea, oztopo arkitektonikoak pixkanaka kentzea, laneratzeko laguntza jasotzea...
- Minusbaliotasun psikikoak dituzten pertsonak: espezializatutako laguntza eskoletan, laguntza ekonomikoak familientzat, lan integraziorako prozesuak...

Erakunde ekologisten zenbait erdiespen:

- Etxeko hondakinak birziklatzea (bereizitako edukiontziak, zenbait hondakinen gaikako bilketa: etxetresna elektrikoak, erabilitako olioak, arropa, garbitzeko produktuak...).
- Labore transgenikoen inguruko ezagutza handiagoa.
- Labore ekologikoen inguruko ezagutza handiagoa.

Erakunde antimilitaristen zenbait erdiespen:

- Nahitaezko soldadutzaren abolizioa.
- Gizarteak armamentu-gastuen berri gehiago izatea...

Erakunde feministen zenbait erdiespen:

- Eskubideak pixkanaka lortzea.
- Emakumeak leku handiagoa hartzea gizartearen esparru guztietan (unibertsitatean, enpresan, administrazio publikoan, politikan...).
- Familia-erantzukizunen banaketa handiagoa.
- Laguntza gehiago familia eta lana bateratzeko (amatasun eta aitasun bajak).

Proposamenak

- Talde txikietan, aipatutako "borroka"ren batean parte hartu duen erakundeetako bati buruz iker dezakezue. Nola sortu zen? Zer helburu ditu? Zein dira haren erdiespenak?
- Litekeena da zure auzoan bizilagun-elkarteren bat egotea. Bizi zaren auzoarentzat lortu dituzten hobekuntzei buruzko informazioa lor dezakezu.
- Zer ezaugarri komun aurki ditzakegu erakunde guztien artean?



Gauzak zer norabidetan aldatzea nahi dugu?

Ekvadorretik ondorengo aportazioa iristen zaigu:

“Niretzat San Frantzisko Xabierkoa kausa onen abenturazalea izan zen. Europa txikia geratu zitzaion nafarra. Mundua begiratzeko Jainkoaren begirada mailegatu zuen misiolaria.

Jendeari beren bizitzen jabe izaten laguntzen saiatzen gara; haiek izan daitezten, funtsean, beren bizitzen jabe, eta ez beste pertsonak. Beren ueste sendoeekin arduratsuak izan daitezten. Beren arazo materialak lanaren eta arduraren bidez gaindi ditzaten. Familia eta hiri balioak landu ditzaten, uneko komenientzien gainetik. Horretarako, gure kargu hamar heziketa-zentro eta unibertsitate bat ditugu, herrialde osoan zehar “Fe y Alegría” sarean parte hartzen dugu eta Ekuadorreko alderdi pobreak garatzeko lau gizarte-zentro sustatzen ditugu.”

Fernando P. (Jesusen lagundiak Ekuadorren dituen giza ekintzen arduraduna)

Proposamenak

- Gogoko ez dituzun eta kexatzeko arrazoi iruditzen zaizkizun errealitateen ideia-jasa egin dezakezu, eta horiek kartoi mehe batean idatzi. Guztiak idatzi dituzula iruditzen zaizunean, egin ezazu gauza bera gogoko ez dituzun gauzak konpontzeko egin ohi dituzunekin: zein kartoi mehetan idatzi dituzu gauza gehien, lehenengoan edo bigarrean? Zergatik kostatzen zaigu gaizki dagoela ueste duguna aldarazteko gauzak egitea? Nola eragotzi dezakegu hori gertatzea?
- MUNDUKO FORO SOZIALARI buruz iker dezakezu, eta zure ikaskideei azaldu: zein elkartzen diren, zergatik egiten duten, zeri buruz hitz egiten duten...
- Zuk zerbait aldatu nahi duzu? Idatz dezakezu paper itsaskorretan eta mapamundiaren gainean kokatu edo egokia iruditzen zaizun beste leku batean.

Beste baliabide interesgarri batzuk

Munduko mapa. Peters proiektzioa. ALBOAN

www.cooperantes.net

www.domund.org

www.edualter.org

www.globalmarch.org

www.gloobal.net

www.masqueunidos.blogspot.com

www.noticiaspositivas.net

www.ropalimpia.org

Bibliografia

Calvo, José (1989) "Así vivían en el siglo de oro". Madril, Grupo Anaya.

Ruiz de Galarreta, José E. (2005) "La huella de Javier. Así lo vieron sus contemporáneos". Bilbo, Ediciones Mensajero.


Zubillaga, Felix (1979) "Cartas y escritos de San Francisco Javier". Madril, Biblioteca de autores cristianos.

Corvisier, André (1986) "Historia moderna. El mundo extraeuropeo (siglos XVI Y XVII)". Bartzelona, Editorial Labor.

Nafarroako Gobernua (2004) "El mundo de Javier. Una visión del siglo XVI a través de la vida de San Francisco Javier". Iruñea, Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondona.

Setem eta Centro Nuevo Modello di sviluppo (1998) "Geografía del supermercado mundial". Iruñea, Berekintza.

Sutcliffe, Bob (1998) "Nacido en otra parte, un ensayo sobre la migración internacional, el desarrollo y la equidad." Bilbo, Hegoa.



Mundua aldatu egiten da

San Przemysław Radzicki mundua aldatu egiten da

Mundua dugun ikuskeraz aldatu egiten da

"Mundua transformazio gara adierazten duen ikuskeraz aldatu egiten da, eta gara aldatuak" berberak, baina, berriz, mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da." **Wlad Kania**

Ikuskerak

Alde onak

Alde txarrak

Digiteko egoera gara du teknologia berria, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Erakundeak mundua aldatu egiten da

Erakundeak mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Gizarte-aldaketak

Erakundeak mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Mundua aldatu egiten da

Mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Denboraren emandako aldaketak: egun bat ... / hiru bizitzan

Denboraren emandako aldaketak: egun bat ... / hiru bizitzan

Denbora	1990	2000	2010	2020
1.000.000.000	1.000.000.000	1.000.000.000	1.000.000.000	1.000.000.000
2.000.000.000	2.000.000.000	2.000.000.000	2.000.000.000	2.000.000.000
3.000.000.000	3.000.000.000	3.000.000.000	3.000.000.000	3.000.000.000
4.000.000.000	4.000.000.000	4.000.000.000	4.000.000.000	4.000.000.000
5.000.000.000	5.000.000.000	5.000.000.000	5.000.000.000	5.000.000.000
6.000.000.000	6.000.000.000	6.000.000.000	6.000.000.000	6.000.000.000
7.000.000.000	7.000.000.000	7.000.000.000	7.000.000.000	7.000.000.000
8.000.000.000	8.000.000.000	8.000.000.000	8.000.000.000	8.000.000.000
9.000.000.000	9.000.000.000	9.000.000.000	9.000.000.000	9.000.000.000
10.000.000.000	10.000.000.000	10.000.000.000	10.000.000.000	10.000.000.000

Mundua aldatu egiten da

Mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Bidaia zaharrak eta bidaia berriak

Bidaia zaharrak eta bidaia berriak

Erakundeak mundua aldatu egiten da

Erakundeak mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Aldaketak bestelakoa den jendearengatik moduan

Aldaketak bestelakoa den jendearengatik moduan

Mundua aldatu egiten da

Mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Gauzak aldatzen dituzten erakundeak eta haien erdiespenak

Gauzak aldatzen dituzten erakundeak eta haien erdiespenak

Mundua aldatu egiten da

Mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da, eta mundua aldatu egiten da, eta ikuskeraz aldatu egiten da.

Zure iranda: eta zuk zer aldatzekin egiten duzu onetsi?

Zure iranda: eta zuk zer aldatzekin egiten duzu onetsi?

Aldatu mundua, mundua aldatu egiten da

Aldatu mundua,

mundua aldatu egiten da



ALBOAN

www.alboan.org

Iruñea

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
E-mail: alboanna@alboan.org

Bilbo

Padre Lojendio 2 • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
E-mail: alboanbi@alboan.org

Donostia

Erronda, 7, 4. I • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
E-mail: alboangi@alboan.org